TRUCA REC, arropa erostea baino, jostea helburu 7. or

Jendartea

Gabonetan jostailu ez sexistak sustatzeko bidea, luzea oraindik 6. or

Kirola

Urte amaieran ere, kirola praktikatzeko aukera ugari eskualdean 11. or

Aiara

Indarkeria matxistaren aurka egunero aritzeko herri ekimena 3. or

aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2015 /// Abenduak 17 ///
OSTEGUNA
43. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

Egun berriari oles urte zaharrari agur

_elkarrizketa

PABLO AZKOAGA

"Ikatzak lanpostu asko sortzen zituen Orozkon, diru asko mugitzen zuen"

"Garai hartan gogorra eta arriskutsua zen ikazkinaren ofizioa"

8 or.



EGUBERRIAK AIARALDEAN: Jatorriaren arabera data esanguratsu hauek ospatzeko modu ezberdinak, gabonak atzerrian emango dituztenen bizipenak...

_iritzia

Txutxi
Ariznabarreta
INDEPENDENTISTA

_Balkoitik

Batzuk, zer ondo bizi garen Euskal Herrian!

Zer ondo bizi garen Euskal Herrian! Sarritan entzuten dugu esaldi hori eta, zenbait daturi erreparatzen badiogu, egia da neurri baten. Giza Garapen Indizea (GGI) kontuan hartzen badugu, Gaindegiak kaleratu dituen datuen arabera, Euskal Herria hirugarren tokian kokatuta dago munduko herrialde guztien artean 0,919 indizearekin. Norvegia (0,944) eta Australiaren (0,933) atzetik, eta Suitzaren, Herbeheren, Estatu Batuen eta Alemaniaren aurretik. Espainiar Estatua 27. tokian kokatuta dago.

Nazio Batuen Garapenerako Programak sortutako neurgailu honek hiru oinarri nagusi ditu: biztanleriaren bizi itxaropen luze eta osasuntsua, formazio maila eta bizitza maila duina (Barne Produktu Gordina biztanleko eta abar). Baina adierazle sozial estatistiko konplexuaren atzean beste aurpegi ilunagoak ezkutatzen dira.

AROPE (At Risk Of Poverty or social Exclusión) Europako 2020 estrategiako adierazlearen arabera, Euskal Herrian biztanleriaren %16,7 pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan bizi da. Era berean, biztanleria osoaren % 4k gabezia material larria du, bizitzeko beharrezkoak jotzen diren oinarrizko baliabideen gabezia, alegia.

Batzuk oso ondo bizi diren bitartean, beste batzuk oso larri. Nabarmena da aberastasuna ez dagoela inondik ere modu egokian banatua. Euskal Herrian dugun aberastasuna sortzeko gaitasunarekin onartezina eta lotsagarria da pobreak izatea gure artean. Pobrerik gabeko Euskal Herria guztiz posiblea da. Justizia soziala da gakoa.

Juanjo
Langile publikoa

Nik badut basora joateko ohitura urteko lehen egunean, txangoa egitera. Urtea hasteko modu polita iruditzen zait hori. Gero San Migelera joateko ohitura daukagu, familiako beste kideekin batera bazkaltzera. Dena den, urte berriari begira, ez dut zerrenda berezirik prestatzen.

Kati
Etxeko langilea

Aurtengoa urte delikatua izango da, amatxu falta delako eta bera gabe jada ez didalako horrenbesteko ilusiorik egiten ospakizunak. Baina beno, semea etxera itzuliko da, turroia bezala. Italian dago lan egiten. Horretarako badut ilusioa, urtarrilaren 2an Italiara itzuli behar duen arren. Espero dugu politikariek egoera aldatzea eta semeak Euskadin lan egin ahal izatea.

?

_GALDERA

Nola ospatzen duzu urte berriaren etorrera? Helbururik jartzen diozu zure buruari?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.

Nekane
Osasun alorreko langilea

Ohiko planari jarraitzen diogu: nire aitaginarrebaren etxean biltzen gara eta afari berezia egiten dugu. Niretzat bereziena Orozkoko duatloia da. Abenduaren 31n egiten da, eta oso egun polita izaten da. Mila plan egiten dituturte berriari begira, baina gero gehienak ezerezean geratzen direnez saiatzen naiz meta handiegirik ez jartzen.

Anartz
Beiragintzako langilea

Urtero biltzen gara familiako kide guztiak. Urte zaharrean Gorbeiara joaten gara gosaltzera, eta gero baserrira, afaltzera. Urtarrilaren 1ean ez gara mendira igotzen, jende gehiegi igotzen delako. Beti planteatzen ditut urte berriarako proiektuak, baina inoiz ez ditugu aurrera ateratzen.

Loli
Tokiko ekoizlea

Urte berriari begira beti jartzen dizkiogu helburuak gure buruari (gimnasiora joatea, adibidez) gero betetzen ez ditugun arren. Urtarrilaren 31ko arratsaldean lagunekin pintxoak eta poteak hartzen ditugu, eta gero familiarekin biltzen gara afaltzeko. Urtarrilaren 1ean ere biltzen gara bazkaltzeko, ajeak uzten badigu behintzat.

_gutunak

Israelgo jostailuak

Aitor Bikandi (Askapenako kidea)

Kontsumismoak gure jendarteari adikzioari aurre egin ezin diezaiokeen pertsonari lez kolpatzen dion garai honetan, gutxienezko ardura eskatu beharko genioke gure buruari.

Ahalegin hau askorentzat handia izan daitekeela jakinik, zilegi da pentsatzea ez dela asko eskatzea hainbat produktuekiko jarrera aldatzea, irizpideak are gehiago zehaztuta. Alegia, etikaren kontra lerrokatuta dauden produktuak gaitzestea, adibidez, Israelen ekoiztutako hainbat produktu, Gabonetan Euskal Herrian ere salgai egongo diren jostailuetako batzuk tartean.

Palestinako umeei eta haien familiei bizitza duina garatzeko aukerak behin eta berriz suntsitu egiten dizkien estatu arrazista eta faxista ekonomikoki babesten duen ekintza sinple hori ukatzea, inoiz baino errepresio handiagoa pairatzen ari den biztanleriari elkartasuna adierazteko modurik eraginkorrena baita hori.

Elkartasun internazionalista praktika aktiboaren bidez sendotu eta errotzea beharrezkoa da. Jarrera horren eraginkortasuna are gehiago bultzatzeko, bai umeengan eta baita helduengan ere. Ez bakarrik Gabonetan, baizik eta urtean zehar, momentu oro,.

Menderatuak

Jose Mari Gutierrez (Laudio)

Hau aurkitu dut hiztegi batean "soldatapeko langilea" esapidea adierazteko: "ordaintzen dionaren jarrerei eta ideiei menderatzen zaien gizabanakoa". Norbaiti menderatzen zaionak uko egiten dio menderatzailearekiko maila berean egoteari; eta erabakietan ez du egoera berean parte hartzen. Demokrazian parte hartzeko aukerarik ez bada ez da demokrazia. Horregatik soldatapeko langileok ez gara aritzen esparru demokratiko batean soldatapeko lana egiten dugunean, kasu gehienetan gutxienez.

Hurko bat lanbide berri batean hasi zen, eta lagunek eta ezagunek galdetzen genion: zelan zure lan berri horretan? Zeharka erantzuten zuen beti: nire zuzendariak ez daki zer egiten dudan. Ilargiari seinalatzen duzunean atzamarrari erreparatzen diotenek, esaten zuten: oso ondo orduan, ezta? Ilargia ikusten dutenek, aldiz, galdetzen zuten: eta... ondo doa enpresa? (...)

John Kenneth Galbraith ekonomistak idatzi zuen erakunde baten maila gorenetan (batez ere), beharrezko pentsamendua estutasun bat dela, edo eragozpen bat; eta dagoenaren onarpen zalantzagabekoa mantentzeko pentsamendua murriztu behar dela. (...)

[Testu osoa aiaraldea.eus web-gunean irakurgai]

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbioi Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g • LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiara

Azaroaren 25eko lanketatik harago joan nahi dute kanpainarekin.

Indarkeria matxistari egunero aurre egiteko dinamika abiatu dute

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Indarkeria matxistari buruz hausnartzeko bilera egin zuten ostiralean Arespalditzako udaletxeko areto nagusian. Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak, Aiarako emakumeen elkarteek eta Aiarako Biltokiak zabaldu zuten deialdia eta 15 pertsona erakartzea lortu zuten; EH Bildu eta EAJko ordezkariak, besteak beste. Hasteko, plangintza prestatuko dute eta bukatu bezain laster bilera deituko dute berriro, urtarrilean, ziurrenik.

Sustatzaileek azaroaren 25ean -emakumeen aurkako bortizkeriaren kontrako nazioarteko eguneanizan zuten ideia. Euren ustez, data horretan egiten den lanarekin ez da nahikoa indarkeria matxistari aurre egiteko.

365 egun biolentziarik gabe

Bultzatzaileen aburuz, arazoak lanketa sakonagoa behar du eta horregatik "365 egun genero biolentziarik gabe" kanpaina abiatu nahi dute. Helburua da herriko eragile guztiek parte hartzea. "Oinarrietatik landu behar dugu indarkeria matxistaren prebentzioa eta horretarako kultur eta kirol taldeen inplikazioa ezinbestekoa da" azaldu du Aiarako Biltokiko kide batek.Horrela, espero dute esparru guztietara hedatzea bortizkeria matxistaren aurkako mezua.

Orozko

_Iruditan

Arrakasta handia izan du Santa Luzia azokak aurten. Joseba Zubizarreta azkoitiarrak irabazi zuen behi onenen saria. Jon Etxeberria orozkoarrari, berriz, ogi onenaren saria eman zioten. Argazkiak: Uxue Alberdi

Amurrio

Saratxoko industrialdea eta herrigunea lotzeko bidea egingo dute

ERREDAKZIOA I

Amurrion egindako azken udalbatzan alderdi guztien adostasuna jaso zuen Saratxoko industrialdea eta herrigunea elkartuko dituen bidea eraikitzeko proiektuak. Horretarako, 63.470 euroko aurrekontua dute. Horietatik 54.300 euro Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako diru-laguntza da. 1.538 metrotako bidea izango da.

2016. urteko zinebonoa doan izango da kintoentzat

ERREDAKZIOA I Irati Moreno Fernandez

Udalak, kultura-ohiturak sustatzeko, 2016 urtean 18 urte beteko dituzten gazteei Amurrio Antzokiko zinebonoa oparituko die.

Zinebonoak izendunak izango dira eta nahi duenak Kultur Etxera jo beharko du, nortasun agiriarekin, eskuratu ahal izateko. Abenduaren 28tik otsailaren 28ra bitartean jaso ahal izango dituzte gazteek zinebonoak. Horiek erabiliz Amurrioko Antzokian 4 pelikula ikusteko aukera izango dute.

Gainerako erabiltzaileak

Abenduan Amurrioko Antzokiak hasiera eman dio "Gabonetan kultura oparitu" kanpainari. 20 euroren truke lortu ahal izango dute herritarrek txartela. Horri esker 2016. urtean egingo diren ekintza guztietan deskontua izango dute. Zinemarako bonoak ere erosi ahal izango dira. Bono bakoitzak 12 euroko prezioa izango du eta 4 pelikula ikusteko balio izango du. Bonorik gabe, prezioak 3,60 edo 4,80 eurokoak dira.

KOMUNIKA

KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA

www.komunika.eus

_herriz herri

Okondo

Jardunaldiak bukatzeko mendi ibilaldia egingo dute / Ganekogorta M. T.

Abian dira Mendiari eta Naturari buruzko IV. Jardunaldiak

ERREDAKZIOA I Kaitin Allende

Gabonak ate joka daudenean, Ganekogorta Mendi Taldekoek datozen egunetan mendiko botak janzteko hainbat aitzakia dakartzate Okondora. Izan ere, laugarren urtez, Mendiari eta Naturari buruzko Jardunaldiak antolatu dituzte.

Atzo hasi ziren, eta Elkartasun Mendiak (Arabako Down erronka) ekimena aurkeztu zuten. Edorta de Anta, Adolfo Madinabeitia eta Yosu Vazquez Pecina kirolariak aritu ziren Astobiza Txakolindegian egindako solasaldian. Lehen erronkaren harira egindako filma ere proiektatu zuten.

Gorbeiako historia

Gaur, hilak 17, Okondoko Kultur Etxean, 19:30ean, Iñaki Garcia Uribe mendizaleak hitzaldia emango du, eta Gorbeiaren inguruko historia ezagutzeko parada izango dute gerturatzen diren pertsonek; leku horrek mendizaleen artean daukan garrantzia azalduko du Garciak. Bihar, abenduaren 18an, 19:30ean, Okondoko Kultur Etxean Salvagoro elkarteko kideak izango dira hizlariak: Ines Latorre eta Enrique Arberas, hain zuzen. Hitzaldiaren izenburua hauxe: "Haginaren jakintza ekologikoa eta kulturala. Eskualde kantabriar-arabarraren kasua".

Mendira ibilaldiak

Larunbatean, hilak 19, Mendizale Eguna ospatzeko, goizeko 9etan aterako dira Okondo inguruko mendietatik ibiltzeko. Ondoren, 15:00etan herri bazkaria egingo dute. Eta ostegunean, hilak 31, San Silvestre eguna dela medio, 09:00etan Okondotik eta 09:30ean Landetatik atera, eta Ganekogortan hartuko dute hamaiketakoa. Taldeko argazkia egin eta urte zaharra agurtzeko topa egindakoan, 14:00ean, Okondorantz itzuliko dira.

Laudio

Zubiko Etxeko parkea / Aiaraldea.eus

Zubiko Etxea berriro antolatu eta hobetzeko lanak egin nahi dituzte

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Udal gobernu taldeak jakinarazi duenez, Zubiko Etxeko ingurua berrantolatzeko hirigintza-proiektua gauzatuko dute.

Helburua parkearen muga fisikoak gainditzea izango da, adin guztietako herritarrek gehiago erabil dezaten.

Umeentzako jokoak

Parkea, gaur egun gertatzen den bezala, umeentzako jolasetara bideratuko da. Hartarako, tirolina, sokak nahiz ur-jokoak biltzen dituzten ekintzetarako baliabideak ezarriko dituzte.

Muga fisikoak kendu

Horrez gain, eraikin publiko hesitua den Zubiko Etxeari perimetroko muga fisikoak kenduko dizkiote. Inguratzen duen 90 zentimetroko altuera duen manposteria horma erdira baino gehiago murriztuko da eta 38 zentimetroko altuera hartuko du. Gainean duen hesi metalikoaren lekuan, ordea, oholtza horizontala ezarriko dute, jesarlekuaren funtzioa bete dezan.

Eskultura eta putzua

Proiektuan, bertan dagoen eskultura lekuz aldatzea jaso dute. Halaber, putzua eta harrizko horma birgaituko dituzte, parkeko bideak konpondu eta zenbait zuhaitz aldatuko dira. Aipatutakoez gain, Zubiko Etxeko fatxadak margotuko dituzte.

Aurrekontua 225.000 euro ingurukoa izango da. Obrak 3 hilabete inguru luzatuko direla aurreikusi dute. Aurretik, ordea, Gobernu Batzordeak proiektua onartu beharko du.

Musika Etxean lanak hasi dituzte

ERREDAKZIOA I
Aitor Aspuru Saez

Musika Etxeko lanak hasi dituzte. Zehazki, obra-hondakinak kentzeari ekin diote. Lanen helburua izango da erabilera anitzetarako prest uztea. Astelehenean bilera egin zuen SOS Laudioko Lamuza Parkea Plataformak Arabako Foru Aldundiarekin eraikinaren erabilerei buruz eztabaidatzeko.

Auzo batzarrak urtarrilean egingo dituzte aurten/ Aiaraldea.eus

Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute auzo batzarretan

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa Aranoa

Udalak antolatutako auzo batzarrak urtarrilean hasiko dira. Parte hartu eta haurtzaindegi zerbitzua nahi duenak 944 034 850 telefonoan izena eman dezake. Batzarra baino hiru egun lehenago egin beharko da erreserba.

Batzar guztiak 19:00etan hasiko dira. Lehenengoa urtarrilaren 18an izango da Aretako Kultur Etxean. Biharamunean, Arrañoren txanda izango da, plazako erabilera anitzeko aretoan. Urtarrilaren 20an Gardeakoa Gizarte Etxean izango da eta 21ean landa eremuko auzokideena plazako erabilera anitzeko aretoan. Urtarrilaren 25ean Ugarteko elizan egingo dute batzarra eta 26an Latiorroko ikastetxean. 27an, Larrazabalgo auzo elkarteak Toki On jatetxean gauzatuko du eta hurrengo egunean erdiguneko auzokoa izango da Kultur Etxeko Arraño gelan.

A—
—MU
RRIO
LOGOPEDIA

LOGOPEDIA AMURRIO,
10 urte baino gehiagoko esperientziadun zentroa:

· Ahots, hizkera, entzumen eta lengoaia tratamenduak.
· Ikasketa zailtasunak eta arreta goiztiarra.
· Ikasketarako laguntza: azpimarratzeko eta memoria lantzeko teknikak, eskumen elaborazioa...

Gainera, 2016ko urtarrilean, otsailean eta martxoan hiruhileko iraupeneko 2 tailer berri eskeiniko ditugu:

TAILERRA: Haur lengoaiaren estimulazioa (H.H 1-3)
TAILERRA: Irakurmenaren ulermena hobetu (L.H 2-6)

Erregistro zenb.: **208/15** Informazio gehiago: **Tel. 665714511** logopedia.amurrio@gmail.com

EGUBERRIAK

Egun berriari oles

Urte zaharrari agur esan, berriari oles egin. Hori da, funtsean, aiaraldearrek datozen asteetan egingo dutena. Denek, baina, ez dituzte egun hauek modu berean biziko. Egongo dira euren herriko ohituren arabera biziko dituzten etorri berriak. Egongo dira ere egun hauek atzerrian igaroko dituzten ikasle eta langileak. Egongo dira baita euren seme-alabentzako opariak erosi edo egitearen artean dudatan arituko diren gurasoak eta Olentzero eta Maridomingi kalejira batean ikusteko irrikatan egongo diren haurrak. Horiek eta gehiago topatu ahal izango dituzu hurrengo orrietan.

_gabonak ospatzeko moduak

ISAAC VILLABA
Ekuatortarra

"Gabon zaharrean urte zaharra irudikatzen duten panpinak ateratzen ditugu kalera, eta urte berria hasten denean su ematen zaie"

"Ekuadorren badago Gabonak ospatzeko ohitura. Makil bat xaboiarekin igurtzi egiten da, eta makilaren puntan opariak jartzen dira. Umeek makilan gora joan behar dute opariak hartzeko, eta labaindu egiten dira. Familiak 24ko gauean biltzen dira. 31ko gauean, berriz, urte zaharra irudikatzen duten panpinak ateratzen dira kalera, eta urte berria hasten denean su ematen zaie".

SOKHNA MARIAMA
Senegaldarra

"Senegalen bertako kristauekin batera ospatzen ditugu Gabonak, kristauek gure festetan ere parte hartzen duten moduan"

"Senegalen Gabonak ospatzen dira, bertan bizi diren kristauekin batera. Gabonetako zuhaitza jartzen dugu, eta familia osoa biltzen gara bazkaltzeko. Urte berriari hasiera emateko Independentziaren Plazan (Dakarren, hiriburuan) bildu egiten da jendea. Badago baita hamabi mahats jaten duenik ere, hemen bizi izandako batzuek hara eraman dutelako ohitura hori".

FATATA MOHAMED FADEL Sahararra

"Guk ez ditugu Gabonak ospatzen. Baina abenduaren 25an Mahoma profetaren jaiotzaren urteurrena ospatzen dugu"

"Guk ez dugu ospakizunik egiten abenduaren 24an. Baina abenduaren 25ean Mahoma profetaren jaiotzaren urteurrena ospatzen dugu. Badugu ere urte berria ospatzeko ohitura; errefuxiatuen kanpalekuetako zein lurralde okupatuetako saharararrek familia-giroan bazkaltzeko ohitura dute. Hemen bizi garen saharararrok barneratuagoak ditugu hemengo ohiturak".

DAVID HOSKING
Eskoziarra

"Abenduaren 25a da egunik garrantzitsuena. Olentzeroren ordez Santa Klaus arduratzen da umeei opariak emateaz"

"Eskoziako eta hemengo ospakizunen artean ez dago ezberdintasun handirik. Gabonetako zuhaitzak jartzen dira eta Olentzeroren ordez Santa Klaus dago, baina umeei soilik eramaten dizkie opariak. Ospakizunaren eguna, ordea, desberdina da: 24an ez dago ezer; 25a da egun bereziena. Familia osoa biltzen gara indioilarra bazkaltzeko, ni barazkijalea naizen arren".

DONG CHUNLIAN
Txinatarra

"Egutegi txinatarra ezberdina da, beste data esanguratsu batzuk ditugu. Familia osoa biltzen gara bazkaltzeko"

"Egutegi txinatarra ezberdina da, beste data esanguratsu batzuk ditu. Urtarrilean edo otsailean hasten da urte txinatarra, hemen baino beranduago beti. Urteko lehen zortzi egunetan denda asko itxita egoten dira, eta umeek ere ez dute eskolarik. Gutxi gora behera hemen bezala ospatzen da, familia guztia bilduz, urte hasieratik 15 egunera, ilargi betea dagoenean".

_eguberriak aiaraldean

Gabonetan oparitzeko jostailuak, urdinetik eta arrosatik harago

Toy Planet enpresak kaleratutako katalogoko bi irudi . Argazkia: Toy Planet

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Ezohiko jostailu katalogoa argitaratu zuen Toy Planet enpresak iaz. Mutilak tradizionalki neskei ezarri zaizkien jostailuekin jolasten irudikatzen zituen katalogo horrek: umeak gurdiak eramaten eta sukaldean platerak garbitzen agertzen ziren. Neskak, berriz, erremintak maneiatzen edota motor gainean ibiltzen. Katalogoa argitaratu ostean enpresak eginiko balorazioaren arabera, bezeroek positiboki hartu zuten genero rol aldaketa hori irudikatu izana. Munduko jostailu industria, baina, horrelako aldaketak egitetik oso urrun dago oraindik. Aurkako joera da nagusi. Jostailuen industria garatzen joan den neurrian geroz eta gehiago murgildu da sexismoan, Laura 'Gaelx' Montero kazetariak Diagonal egunkarian azaldu duenez. Kolore arrosa eta urdinaren erabileren adibidea jarri du Monterok: "70. hamarkadan hasi zen garatzen bi kolore horien eta neska eta mutilen arteko lotura, lehenago ez zen asoziazio hori egiten". Enpresek "merkatu-hobiak" bilatu nahi izatean datza sexismoa sustatzearen zergatia, kazetariaren arabera.

Gomendioak

Jostailuak erosterako orduan kontuan hartzeko zenbait gomendio ematen dituzte adituek. Alde batetik, umeak eskatzen duen oparia erostera zuzenean joan ordez, eskaera kritikoki aztertzea. Jostailu kooperatiboak hobestea gomendatzen dute. Hau da, umeak elkarrekin (neska eta mutilak) jolastea sustatzen dutenak. Garrantzitsua da baita jostailuek munduan dagoen genero, arraza, sexu joera edota kultura aniztasuna transmititzea, eta lehiakortasuna sustatzen duten jokoak ekiditea.

Monterok gaineratu du badaudela baita Gabonetako ohiko kontsumoarekiko alternatibak. Trukea eta bigarren eskuko objektuak jarri ditu adibide moduan. "Ume batentzat zaharra den jostailu bat berria izan daiteke beste ume batentzat. Zentzu horretan geroz eta ugariagoak dira jostailuen doako trukerako edo salerosketarako guneak".

_publizitatea

PROIEKTA ESTUDIO

"Material birziklatuekin gauza erraz asko egin daitezke Eguberrietan etxea dekoratzeko"

SARA NAJERA DEL CERRO (Amurrio, 1976) eta **MAITE MARTINEZ MENOYO** (Agiñiga, 1983) Proiekta Estudio-ko kideak dira. Euren eguneroko jardunaz galdetu diegu, bai eta gabonetarako aholkua eskatu ere.

Zer egiten duzue Proiekta Estudion?

Hainbat gauza eskaintzen ditugu. Alde batetik, gremioen koordinazioaz arduratzen gara. Hau da, zerbait erreformatu behar izanez gero, erreforma horretan parte hartu behar duten gremio ezberdinetako langileak koordinatzen ditugu, obraren berrikuspen orokor bat eginaz.

Horrez gain, honako alor hauek ere jorratzen ditugu: erreformak, merkataritza guneetako obrak, altzari horniketa, etxebizitzen banaketa proiektuak (espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzen dela bermatzeko), dekorazio aholkularitza... eszenarioak sortu eta girotzen ditugu, denden erakusleihoentzat, adibidez.

Zuen lanaren adibiderik ikusi daiteke arlo horretan?

Bai. Gure lanaren adibide esanguratsu bat Ormaetxea dendarentzat diseinatutako erakusleihoa da (argazkian). Material birziklatuekin egin genuen osorik.

Ormaetxeako erakusleihoa. / Proiekta Estudio

Eguberriei begira, etxea dekoratzeko aholkuren bat ematerik bai?

Jakina! Material birziklatuak erabilita gauza txiki eta erraz asko egin daitezke Eguberrietan etxea modu sinplean dekoratzeko. Umeek ere parte hartu dezakete, eta birziklapenaren gaineko zenbait balio ikasteko aukera izango dute.

Elexondo Kalea 22, Amurrio / Telefonoa: **606 69 18 74** / E-mail: info@proiektaestudio.com / Facebook: **Proiekta Estudio**

Material birziklatuekin dekoratzeko ideiak

GIRLANDA

1) Arrautza kutxa bat hartu eta arrautzak banatzen dituen muinoa kendu. Petalo itxura emanez moztu. Konoaren puntan zulo bat egin behar da, gero bonbilla sartzeko.

2) Nahi duzun kolorearekin margotu, tenperarekin edo edozein pinturarekin.

3) Bonbillak sartu eta piztu!

HOSTOAK

1) Tamaina ezberdinetako hostoen bila joango gara parkera.

2) Egunkari zahar bat hartu eta hostoak orrien artean sartu, lehortu daitezen.

3) Errotuladore zuri bat erabilita hostoa apaindu, bakoitzaren gustura!

4) Mahaia apaindu!

_eguberriak aiaraldean

TRUCAREC

"Arropa erosi beharrean, duguna birmoldatzeko aukera eman nahi dugu"

ESTITXU CARRASCO (Basauri, 1985) Orozkon sortutako TrucaRec elkarteko kidea da. Bilbon du egoitza taldeak, eta arropa erabilia birmoldatzea du xede. Tailerrak antolatzen dituzte horretarako.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

TRUCAREC
Helbidea: Dos de Mayo kaleko 13. zenbakia (Bilbo)
Telefonoa: 944169790 edo 619787236
E-posta: truca.rec@gmail.com
Web-gunea: trucarec.wordpress.com

Zer helbururekin sortu zen TrucaRec?

2008ko azaroan sortu zen elkartea, arropa birziklapenaren gaia lantzeko. Gure lokalera iristen den arropa birmoldatu egiten dugu. Joste tailerrak ere egiten ditugu, gure lokalean zein kanpoan, hainbat azokatan.

Nolakoa da arropa birziklatzearen prozesua?

Gurera iristen den arropa aztertu egiten dugu lehenbizi. Egoera txarrean badago gure lokalean dugun "Doako arropa"-ren gunera[1] eramaten dugu, nahi duenak hartu dezan. Egoera onean dagoen arropa birmoldatu egiten dugu. Partxeak jartzen dizkiogu, prakak poltsa bihurtzen ditugu... arropa bota ordez birmoldatzea da helburua.

"TrucaRec-era bi astez etortzea aski da josten ikasteko. Eta behin josten dakizula erraza da arropa birmoldatzea"

"Ikastetxeetan tailerrak egin nahiko genituzke"

Joskintza ezagutza handiak behar dira halakoak egiteko?

Ez. Tailerrak egiten ditugu ezagutza horiek transmititzeko. Tailer horietan, alde batetik, josten irakasten dugu eta, bestetik, arropa birmoldatzen. Tailerretan parte hartzen dutenek euren arropa propioa edo tailerrean bertan dagoena erabiltzen dute horretarako.

Gabonetan arropa erostearen aldekoak baino, jostekoaren aldekoak zarete zuek, beraz.

Hori da. Etxean arropa zaharra baldin baduzu erraza da birmoldatzea: partxeak jarri ahal dizkiogu, botoiak aldatu, kolore apur bat eman... TrucaRec-era bi astez etortzea aski da josten ikasteko. Eta behin josten dakizula erraza da arropa birmoldatzea. Ideiak hartzea ere inportantea da. Guk ere lagundu egiten diegu tailerretan parte hartzen dutenei ideia ezberdinak garatzen. Stencil (arropa margotzeko txantiloia) tailerra ere eskaintzen dugu.

Non ibiliko zarete aste hauetan?

Duela gutxi Basaurin egon ginen, eta orain negua heltzearekin batera Bilbon azoka asko antolatzen dituzte. Azoka horietako batzuetan egongo gara gu. Laudion eta Amurrion ere aritu izan gara, baina momentuz ez dugu beste zitarik Aiaraldean.

Lokala Bilboko Dos de Mayo kalean dugu, eta bertan hileko lehen larunbatean egoten den azokan parte hartu ohi dugu. Postua jartzen dugu gure arropa saltzeko. Baina tailerra ere eskaintzea proposatu digute, eta hala egingo dugu datozen hilabeteetan.

Eta zer asmo dituzue etorkizunari begira?

Orain arte bezala jarraitzeko asmoa daukagu, baina proiektua apur bat zabaldu nahiko genuke. Gizarte etxeetan parte hartu nahiko genuke, eta Euskal Herriko mugimenduetan gehiago sartzeko asmoa ere badugu. Ikastetxeetan ere sartu nahiko genuke, gazteekin jasangarritasuna lantzeko.

Bigarren eskuko arropa modan jarri dela diote batzuek. Hala ikusten duzue zuek?

Guk egiten duguna ez du jende askok egiten. Bigarren eskuko arroparen salmenta asko ugaritu da, baina guk arropa birmoldatu egiten dugu. Guk jasotzen dugun arropa eta saltzen duguna ez da berbera. Horrekin jolasten dugu guk: jendeari ikustarazten gure arropa propioa birmoldatu dezakegula, jantzi berriak sortzeko eta horrela arropa hori erabiltzen jarraitu ahal izateko.

Krisia hasi aurretik jendeak maizago[2] botatzen zuen arropa zakarrontzira. Orain guri ez zaigu horrenbeste arropa iristen.

Hiztegi lagungarria

Gunea[1], zonaldea, txokoa / Maizago[2], sarriago, aldi gehiagotan

IKAZKINAK

"Ederra zen Santa Marinan zegoen egur erre usaina, 10-15 ikaztegi zeudenean"

1949. urtea berezia izan zen PABLO AZKOAGAren (Orozko, 1929) bizitzan. Urte hartan igo zen mendira bere anaiarekin ikatza egiteko. Hurrengo urteetan egurra eta ikatza garraiatzen egin zuen lan.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Zuk behin baino ez duzu ikatza egin; 1949an, ezta?

Hala da. Nire aitak bazuen mendi bat Larragorrin, bere aitonaren eskutik heredatu zuena. Santa Marinako elizari 1795ean 13.000 dukadoren truke erositako lursail bat zen. 1949an esan zigun gure aitak ikatza egin nahi zuela. Nire anaia eta biok joan ginen lan hori egitera, Eusebio Olabarriarekin batera. Berak lurrezko etxola bat egin zigun. Lehen gauean hotza pasatu genuen, etxola heze zegoelako. Berriz altxatu behar izan ginen sua egiteko.

Bi hilabetez egon ginen bertan. Egunero biltzen genuen egurra, astelehenetik larunbatera. Larunbatetan etxera itzultzen ginen.

Otsaila amaieran elurte bat egon zen eta etxera itzuli behar izan ginen. Abuztu partean joan ginen ikaztegira egur bila. Nire aitak orduan ikazkin bat bilatu zuen, eta berarekin hasi ginen ikatza egiten, urrirarte. Ikatza egin ahala jaitsi eta saldu egiten genuen, 10 pezetatan kilo bakoitza.

Hortik hurbil bazeuden beste mutiko batzuk ikatza egiten, elkarri laguntzen genion. Guk hiru egunetan egiten genuen lana eurek bitan egiten zuten, profesionalak eta gu baino helduagoak zirelako. Nik 19 urte nituen eta nire anaiak 18.

Ikatza egitea gogoko zenuen?

Ikatza egitea ez nuen oso gogoko. Aizkorarekin adarrak kentzeko pagoetara igotzea zen gustuko nuena. Garrantzitsua zen mozteko modua, adar berriak ateratzea bermatu behar zen eta.

1949an baino ez genuen egin ikatza. Ondorengo urteetan egurra eta ikatza garraiatzera mugatu ginen.

Nolakoa zen ikatza egitearen prozesua?

Profesionaltasuna eskatzen zuen. Egur zatiak bata bestearen gainean jarrita bi metro inguruko altuera zuen tximinia osatzen genuen lehenbizi, "txikita" deitzen geniona. Egurra tximiniaren inguruan pilatzen genuen, eta egur-meta iratzez estaltzen genuen gero. Garrantzitsua zen egurra ondo pilatzea, hutsunerik geratu ez zedin. Behin "mendia" osatuta, iduriarekin (aurreko ikatz ekoizpenetan sortutako hautsa) estaltzen genuen.

Aurreko guztia eginda, brasak botatzen ziren tximiniatik behera. Tximiniaren zuloa estali egiten zen ondoren, sua atera ez zedin. Dena ondo estutu behar zen, ondo egosi zedin.

Arriskutsua zen?

Bai, Orozkoko bizilagun bat osorik erre zen. Ez zuen tontorrera igotzeko eskailerarik eta sura erori zen. Gurekin zegoen ikazkinak bazekien gauzak nola egin eta ez genuen arazorik izan, eskailera batekin igotzen ginen beti.

Gauetan ere erne egon behar ginen, egur-metan zuloren bat sortuz gero sua ateratzeko arriskua zegoelako. Lau egur-meta genituen aldi berean egosten. Egur-meta bakoitzak sei egun inguru behar zituen ondo erretzeko. Gero idiekin jaisten genuen ikatza herrira.

Eta zertarako erabiltzen zen ikatza?

Orozkon bazegoen industria nahiko, baita burdinola ugari ere. Guztiek ikatza behar zuten funtzionatzeko. Etxebizitzetan ere erabiltzen zen, su txikietan.

Ikatz asko egiten zen Orozkon, gehiena Bilbora eramaten zen. Gasteizera eta Mirandara ere garraiatzen genuen. Orozkon bazegoen ikaztegi bat. Bertan biltzen zen ekoitzitakoa eta kamioiak gerturatzen ziren gero ikatza beste leku batzuetara eramateko.

Jende askok egiten zuen lan prozesuan. Diru asko mugitzen zen ikatzaren merkatuan. Lapurzulon dagoen 10 hektareako mendi bat 5.800 pezetaren truke saldu zen 1915an, langile baten eguneko soldata pezeta eta erdikoa zenean. Orain ez du ezer balio, baina garai hartan bai, ikatza ekoizten zelako bertan.

"Arriskutsua zen ikatza egitea, Orozkoko bizilagun bat osorik erre zen"

"Ikatza egitea zer zen ezagutu dugunontzat ogibide horren gogortasuna adierazteko modu bat da Olentzeroren ospakizuna"

Esaten da Olentzero eta Mari Domingik txarto portatu diren umeei eramaten dietela ikatza.

(Julia Barberena, Pablo Azkoagaren emaztea, hasi da hizketan): Ikatza egitea zer zen ezagutu dugunontzat ogibide[1] horren gogortasuna adierazteko modu bat da Olentzeroren ospakizuna. Oso gogorra zen ikatza egitea.

Pablo Azkoaga: Bai. Mendian geundenean bi otordu[2] egiten genituen egun bakoitzean. Plater bakarra: babak urdaiarekin. Oso gogorra zen.

Ikatza egitea zerbait folklorikoa izatera pasa da. Zergatik?

Laudion industria garatzen hasi zenean jende asko fabriketan lan egitera pasa zen. Gaur egun ortuan lan egiteari ere utzi egin zaio. Jendeak nahiago du erosketak Eroskin egitea.

Gainera, gaur egun debekatua dago mendian ikatza egitea, suteen aurkako neurri bezala. Zuk ez duzu hori bizi izan: Santa Marinara igotzea 10-15 egur-meta egosten zeudenean, oso ederra zen goizetan zegoen egur-erre usaina.

Hiztegi lagungarria

Ogibide[1], lanbide / Otordu[2], bazkari, jateko une

MENDITIK JAITSITAKO PERTSONAIA



(Argazkia: Olentzeroren panpina Oiartzunen. Argazkilaria: Bernardo Oñativia)

Ikatzari oso loturik dagoen pertsonaia da Olentzerorena, gaur egun ikazkin moduan irudikatzen baita. Olentzero bezala, ikazkinak ere negu partean jaisten ziren menditik. Ikatza, kutsu negatibo bat izatetik urrun, gauza preziatu bat kontsideratzen zen, neguan etxeak berotzeko balio baitzuen.

Olentzero asexuala

Olentzero ez da beti umeei opariak ekartzen dizkien figura bat bezala irudikatu. Felix Mugurutza adituaren esanetan, hasieran urteko garai bati egiten zion erreferentzia: oles-aroari. Kristautasunaren etorrerarekin sortu zen Olentzero pertsonaia. Baina, ikazkin bat baino, gizon beldurgarri eta mozkorti bat bezala azaltzen zen. Gaur egun duen esanahia nahiko berria da, azken hamarkadetan garatutakoa.

Beste aditu batzuk, berriz, Olentzeroren sexua ere zalantzan jartzen dute. "Leitzan 'Olentzaro' deitzen zaio, etxe batzuetan gizonezko moduan irudikatzen da eta beste batzuetan emakumezko moduan", azaldu du Aritza Bergara idazle eta euskal mitologian adituak Berria egunkarian argitaratutako artikulu batean.

_eguberriak aiaraldean

Gabonak Aiaraldetik urrun igaro beharra, lana edo ikasketak medio

Gabonak familiarekin eta lagunekin etxean biltzeko garai moduan finkatu ditu tradizioak. Badaude, baina, datozen asteak atzerrian igaroko dituzten aiaraldear ugari, lana edo ikasketak direla eta. Euretako hiruk Eguberriak nola igaroko dituzten kontatu dute.

1.- Aurtengo eguberriak kanpoan ospatuko dituzu? Non eta zergatik?
2.- Egun horiek Aiaraldean igarotzea faltan botako duzula uste duzu? Familia, lagunartea, giroa...
3.- Nola ospatzen dira eguberriak hor?

GOIATZ URKIJO KASTAÑARES

Ikaslea **(TXILE)**

1.- Bai, aurtengo eguberriak Txilen ospatuko ditut, urtebete emango dut (2016ko uztailera arte) bertan nire ikasketak amaitzen. Esan beharra dut ikasketak Euskal Herritik kanpo egiteko aukera erabat gomendagarria eta aberasgarria dela.

2.- Baietz uste dut. Hala ere, eguberria modu, leku, konpainia, urtaro.... ezberdinean ospatzeak ere bere xarma duela iruditzen zait. Dena den, garai hauetan nirean egon diren ohiturak eta familia elkartzeko guneak faltan botako ditudala uste dut. Azken hori ez daukat argi Gabonetako giroagatik izango den edo dagoeneko etxetik kanpo ia urte erdi daramadalako.

3.- Bai, eguberriak ospatu egiten dira, hala ere gureekin alderatuta badira ezberdintasunak. Batetik, eguraldia. Hemen eguberriak uda sasoian ospatzen dira. Gabon zaharra hondartzan ospatzea ahalbidetzen du horrek. Guk hamabi mahatsak jan ohi ditugun bitartean hemengo batzuk kostaldera doaz su artifizialak ikustera.

Etxeko giroan afaltzen dutenek, aldiz, hainbat ohitura jarraitzen dituzte. Esaterako, urteko lehen besarkada familiako sexu ezberdineko kide bati ematen diote, diru aldetik urte oparoa izateko esku artean txanpona (haientzako "plata") izaten dute, eta barruko arropa horia erabiltzen dute egun horretan. Bestalde, gure Olentzerori "Viejito Pascuero" deitzen diote, eta opariak ekartzen dizkie umeei.

Badira gurearekin konparatuta hain ezberdinak ez diren gauzak ere: eguberrietako apaingarri gisa gabonetako zuhaitz nahiz argiak erabiltzen dituzte eurek ere. Niretzat, zalantza barik, bitxiena eguberriak 30 gradutik gora ospatzea izango da, orain 12.000 kilometrotara dudan beheko sutik kanpo.



AITOR ULIBARRI HERNANDEZ

Marinela **(TURKIA)**

1.- Bai. Aurten ere eguberriak etxetik kanpo ospatuko ditut; Turkian, Mersin hirian. Merkataritza itsasontzi batean lan egiten dut, eta horregatik hiru urte daramatzat eguberriak kanpoan ospatzen. Nire lanagatik normalean eguberriak edonon ospa ditzaket. Iaz Argelian pasa nituen. Pixka bat gogorra da etxetik kanpo egotea, eta gainera zeure familia eta lagunak ez ikustea, baina denborarekin edozertara moldatzen zara.

2.- Noski baietz. Asko botatzen dira faltan familia, lagunak eta koadrila; baina gehien bat nire herria: Okondo, Aiaraldea eta Euskal Herria. Nire lanagatik herri eta kultura asko ezagutu ditzaket baina gure sustraiak ahaztea ezinezkoa da. Etxera bueltatzeko zenbat egun falta diren egunero kontrolatzen dut.

3.- Hemen ere, Turkian, eguberriak ospatzen dira. Zaila da jakitea nolakoak izango diren aurten, hiri honetako egoera politikoa pixka bat larria delako. Guk behintzat itsasontzian elkarrekin igaroko ditugu. Ez dira izango eguberririk onenetarikoak, baina, tira, lagunen artean egongo gara.

GUILLERMO ANDREVA DE BARRIO

Langilea **(KAZAJSTAN)**

1.- Bizitzen nagoen tokian igaroko ditut Gabonak; Astanan, Kazajstaneko hiriburuan. Hemen egotearen arrazoia beste hainbat jendek duenaren antzekoa da: lana. Nire enpresak hona urte batzuetarako etortzea eskaini zidan eta ez nuen aukera hori galdu nahi izan.

2.- Noski botako dudala faltan Gabonak Aiaraldean igarotzea, oso gabonzalea ez naizen arren ekidin ezina da garai honetan zure jendea apur bat gehiago faltan botatzea. Familiarekin egotea, zure lagunekin poteak hartzea... garai honetan hemen ia ezinezkoa da kalera ateratzea paseo bat ematera, tenperatura baxuek ez digute uzten. Nire ilobak Olentzeroren opariak irekitzen ez ikustea ere botako dut faltan. Ea zortea dudan eta gabon zaharretarako gerturatzerik dudan.

3.- Hemen ez dira Gabonak ospatzen, gehiengoa musulmana delako. Eskertzekoa da hori, horrela egun hauek, beste edozein bezala, lanean igaroko ditut eta ez dut horrenbeste pentsatuko etxean.

info@wegoaz.com
608 182 172
Buen Suceso, 7 Orduña

wegoaz.com

Kontsultatu zure eski estazio eta data gogokoena!

HASI DA ELUR DENBORALDIA!
¿Prest zaude eskiatzeko?
Armairutik botak, eskularruak, tablak, txanoa, anoraka...ateratzeko garaia da!

CANDANCHU
URTARRILEAN ASTEBURUPASA
2 gau+gosaria Las Nieves hotelean
+ 2 egunerako forfaita
72€ pertsonako
Urtarrilak 8tik aurrera

GRANDVALIRA
- PAS DE LA CASA-
ERREGE EGUNETAN
3 gau Paradise Blanc 5 personentzako apartamentuan + 2 egunerako forfaita
165€ pertsonako
Urtarrilaren 3tik 6ra

ASTUN
URTARRILEAN ASTEBURUPASA
2 gau+gosaria La Paz hotelean
+ 2 egunerako forfaita
99€ pertsonako
Urtarrilak 8tik aurrera

FORMIGAL
ERREGE EGUNETAN
3 gau+gosaria Mur hotelean
+ 2 egunerako forfaita
139€ pertsonako
Urtarrilaren 3tik 6ra

LUZ ARDIDEN
URTARRILEAN ASTEBURUPASA
3 gau Domaine du Val de Roland 5 personentzako apartamentuan + 2 egunerako forfaita
99€ pertsonako
Urtarrilaren 8tik aurrera

_publizitatea

Gabonetarako menua Arcos de Quejana jatetxearen eskutik

ALBERJINIA ETA KETUEN HOSTOPILA MODENA OLIO BALTSAMIKOKO OZPIN-OLIOAREKIN

OSAGAIAK (4 LAGUN):

- Xaflatan moztutako alberjinia 1
- Brunoise erara moztutako 2 tomate
- Oreganoa
- 8 kardu-ziza
- Piper gorri erreen 200 g
- 8 gari-zainzuri
- Ketutako izokinaren 100 g
- Ketutako atunaren 100 g
- Maldon gatza
- Eskarola
- Modenako ozpin-olioa

ELABORAZIOA

Lehenik eta behin, alberjinia zentimetro erdiko xafletan moztuko dugu. Plantxatik pasatuko ditugu alberjinia xaflak, kardu-zizak eta gari-zainzuriak. Eta, azkenik, tomatea eta oreganoa salteatuko ditugu.

PLATERERATZEA

Hostopila geruzetan muntatuko dugu; lehenik eta behin behealdea beteko duen alberjinia geruza bat jarriko dugu, eta hau tomatearekin estali. Tomatearen gainean beste geruza bat osatuko dugu, oraingoan ziza eta izokinarekin. Alberjinia geruza berri bat gero, eta honen gainean piper gorriak eta gari-zainzuriak. Azkenik beste alberjinia geruza batekin itxiko dugu hostopila. Eskarola gatz eta olio apur batekin gatzozpinduko dugu guztia, eta hostopilaren gainean aurkeztuko dugu. Azken-azkenik, Modenako ozpin-olioarekin gatzozpinduko dugu hostopila.

TURROI NATILLAK

OSAGAIAK (8 LAGUN):

- Litro 1 esne-gain
- Litro 1 esne
- Turroi bigunaren 150 g
- 200 gramo azukre
- 16 arrautza-gorringo

ELABORAZIOA

Esne-gaina eta turroia su txikitan irakiten jarriko dugu 10-15 minutuz. Infusionatzen utzi (kontu handiz, ez dadin erre) eta iragazi egingo dugu.
Ondoren, arrautza-gorringoak azukrearekin irabiatu. Esnea gaineratu eta ondo nahastu guztia.
Nahasketa maria bainuan egosi, behar bezala loditu dadin, 80 ºC-tara iritsi arte (irakin gabe). Aurreko nahasketa gaineratu eta guztia ondo nahastu.

PLATERERATZEA

Natillak marrubi edo masusta-gorrien izozkiarekin zerbitzatuko ditugu. Fruitu gorrien coulis batekin eta menda-belar orri batzuekin apainduko dugu platera.
Oso hotz zerbitzatu.

hotel & restaurante
ARCOS DE QUEJANA

Beotegi errepidea z/g
01477, Kexaa
Tel. **945 39 93 20**
www.arcosdequejana.com
info@arcosdequejana.com

_eguberriak aiaraldean

Izerdi egitea, neguan gorputza berotzeko modurik onena

Orozkon San Silvestre duatloia egiten dute abenduaren 31an. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Eskualdeko kirol elkarte eta klubek hamaika ekintza antolatu dituzte Gabonetarako. Eskualdeko hainbat herritan Eguberritako opor eta ohiko ekintzez gain, kirolaz ere disfrutatzeko aukera egongo da.

Baina klubek antolatutako ekimenez gain, Euskal Herrian hainbat ohitura daude. Horietako bat, urtea modu osasuntsuan agurtzea da. Horregatik, urteko azken egunean mendira igotzeko tradizioa jarraitzen dute askok. Txarlazo Mendi Taldeak, adibidez, Txarlazora igotzeko txangoa(1) antolatzen du. 9:30ean aterako dira Foru Plazatik. Horrez gain, hamaiketakoa egingo dute mendizale guztiek elkarrekin.

Ganekogorta Mendi Taldekoek, berriz, egun berean egingo dute ibilaldia Ganekogorta tontorrera. Goizeko bederatzietan aterako dira landetatik eta mendi igoeraz gain, gailurrean hamaiketakoa eta "talde brindisa" egingo dute.

San Silvestreko probak

Baina mendira igotzearena ez da Gabonetan dagoen ohitura bakarra. Hilaren azken egunean San Silvestreko hainbat ekintza ere antolatzen dira eta nola ez, eskualdeko hainbat herritan ere badaude halakoak. Urduñan, Orozkon eta Luiaondon hainbat proba egingo dituzte. Arando Korrilakari Elkarteak herri lasterketa gauzatuko du Urduñan. Bi txandatan banatu dute ekitaldia. Lehenengoa umeentzat izango da, 18:30ean; eta 1,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte hartzaileek.

Nagusiek, ordea, 3 kilometrotako ibilbidea bete beharko dute hiriko kaleetan barrena, umeek lasterketa bukatzen dutenean.

Orozkon, berriz, Duatloiaren XIII. edizioa egingo dute, Spiuk-ek, Udalak eta Txirrindularitza Elkarteak antolatuta.

Ibilbidea ez da aldatu: 2,5 kilometro izango dira korrika egin beharrekoak, eta jarraian beste 9 bizikletarekin. Orozkoko Txirrindularitza Elkarteko kidea den Karlos Isusiren arabera, ibilbideak "errazak" dira; "edozeinek egiteko modukoak"

Luiaondon II. San Silvestre mendi ibilaldia egingo dute abenduaren 31n. Ibilaldiak 14 kilometroko luzera izango du. Santa Marinara abiatuko dira 9:30ean. 4 ordu inguruko txangoa izango da, Administrazio batzarrak antolatua Mendiko Galduak Taldearekin.

Hiztegi lagungarria

Txangoa(1), ibilaldia

URTE BERRIARI HARRERA

Zaharrak ordezkatu dituzten ohitura berriak

Hamabi mahatsak jatearen ohitura hedatua dago. / Jacinta Lluch

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Mahatsak, su-artifizialak, kotilioiak, familiarekin bazkaria... ohitura eta tradizio asko pilatzen dira abenduaren 31n eta urtarrilaren 1n. Aiaraldean egon dira, baina, beste ohitura batzuk, jada galduak daudenak.

Etxez etxe abesten joatea da galdutako ohitura horietako bat. "60. hamarkadan Urigoiti, Zaloa eta Ibarra inguruko umeak urtarrilaren 1ko goizetan ateratzen ginen abestera, Santa Agendan bezala", oroitu du Supelaur elkarteko kidea den Jose Angel Aramendik. "Zenbait laudioar oles egiten zebiltzan, diru eske etxez etxe, 'Aguilando rechinel'-en abestia kantatzen", azaldu du Felix Mugurutza historia ikerlariak. Urduñan ere abesti bera abestera irteten ziren.

Opariak

"Urteberri eguneko arratsaldean, mutilek neskei egiten zieten oparia plazan", azaldu du Mugurutzak, "Errege egunetan (Epifania), ordea, neskek egiten zieten mutilei".

Lucia Amaltea Garcia Gete

HAYTAMAKO PSIKOLOGOA

_40 egun zure bizitza aldatzeko

"Urte berria, bizitza berria". Urte amaieran onaren eta txarraren balantzea egiten dugu, Mecano taldeak zioen moduan. Iristear dagoen urte berriari begira gaude, hobetzeko aukerarekin; asmo onak dira.

Nire kontsultan askotan entzun izan dut honako esaldi hau: "Aldatu nahi dut baina ezin dut, beti izan naiz horrelakoa". Horregatik, "40 egun zure bizitza aldatzeko" tituluak handinahia dirudi. Eta bada. 21 eta 40 egun artean behar dira ohitura bat hartzeko, baina argi dago ondorenean ere horretan lan egiten jarraitu behar dugula.

Imajinatu zelai berde bat. Imajinatu tomateak zure platerean. Zelaiaren eta zure plateraren artean bide bat dago, zuk ibili beharreko bide bat. Lehenbizi, soroko lurra aztertu beharko duzu, lur guztiak ez direlako berdinak eta ez dutelako helburu berdinetarako balio. Bere sustrai eta oinarriak onartu. Jarraian, haziak landatuko dituzu, txikiak baina aukera askokoak. Maiztasunez urreztatuko dituzu, eta eguzkiari bere lana egiten utziko diozu. Prozesu osoan zehar aldaketa bakoitza behatuko duzu, momentu bakoitza. Ur zaparrada batek kendu edo eman diezazuke, bero asko lagungarria izan daiteke, edo ez. Zure esku ez dauden fenomenoak zurekin sinkronizatzen direla dirudi batzuetan. Beste batzuetan, berriz, zu izorratzera etorri direla. Zure esku dago nola ulertu fenomeno bakoitza. Bukatzeko, tomateak jasoko dituzu; batzuk euren kasa eroriko dira, beste batzuk berde, eta beste batzuk onduak, platerera eramateko prest.

Gauza bakoitzak bere unea behar du. Orain aprobetxa ezazu etxean egoteko momentu hau, urtea laburbiltzekoa eta bere fruituak hazten ikusi ditzakeen lur horri so egotekoa. Ausarta izan, emaiozu zure buruari nor zaren ezagutu eta onartzeko aukera, pentsamendu positiboak landatzekoa, indartsu eta zure aldaketaren une bakoitzaren jabe izatekoa.

Lortu genuen, ezinezkoa zela ez genekielako.

Eguberrion guztioi!

Olentzero eta Mari Domingi gara. Eskutitz mordoa jaso ditugunez guk ere jasotako maitasuna, indarra eta ilusioa itzuli nahi dizuegu. Lasai, oraindik ez badiguzu gutunik idatzi ezkerraldean lekua utzi dizuegu, desio dituzuen kontutxoak idazteko. Zer nahi duzuen entzutera gatoz. Ez dakizula ondo idazten? Berdin du, ondo ala frakets idatzi euskaraz badago berdin poztuko gara, ez dugu ulertzeko zailtasunik izango!

Ez dakizula zer eskatu? Ziur badagoela zerbait gozoko duzuna. Ez du zertan jostailua izan behar, familia edo lagunekin denbora igarotzea, animoak, muxuak... denetarik eska dezakezu! Pentsatu zer nahi duzun eta lortzen saiatuz gero, seguru jasoko duzula! Berdin du neska, mutila, edadetua, urnea, heldua edo gaztea izatea! Magia zure baitan dago, sinisten duenarengan!

Guk ere eguberri hauetan familia eta lagunekin ondo pasatu nahi dugu. Gustatzen zaizkigun gauzak konpartituko ditugu lehengusu, neba eta lagunekin! Izan ere, gauzak konpartitzean balio eta gozamen bikoitza ematen dute! Edo laukoitza! Zenbat eta lagun gehiagorekin gozatu, orduan eta opari hobea izango da!

Tira lagunak! Txondorrari eta abereei jaten ematera goaz. Aizue, eta badakizue datozen egunetan zuen herrira joango garela bisitan, ezta? Zoriona zakutan jaso eta oparitzera goaz! Abenduaren 24an Aiaraldean ikusiko gara! Alabaina, mesede bat eskatu nahi dizuegu: gutunarekin batera marrazki bat egingo? Hartara gure bihotzak eta baserriko paretak koloreztatuko dituzue munduarekin batera! Galtzagorrik esan digu azkenaldian euskara gehiago egiten saiatzen ari zaretela. Segi horrela, zuretzat ez baitago geletan, dendetan, kalean... euskara entzutea baino gauza ederragorik!

Orain bai, agurtzeko ordua iritsi zaigu. Ez ahaztu zuen gutun eta marrazkiak postontzira eramaten edo guri eskura ematen! Irudi, gutun eta era guztietako oparien bidez (besarkada, ibilaldi, pizza, talo...) mundu maziko bat lortuko dugu! Musu zaku bat eta bueltak amari!

Kaixo Maridomingi eta Olentzero...

Eskerrik asko!

Izena:

Helbidea:

Kolorezta gaitzazu!

_herriz herri

Urduña

Irudia hobetzeko hainbat ekintza pentsatu dituzte / Urduñako Udala

Urduña hobetzeko 7 gunetan 11 proposamen egin dituzte

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Udalak ornamentazioa hobetzeko hainbat proposamen egin ditu. Helburua hiriaren irudia hobetzea da. Horretarako, lantalde bat sortu zuten duela hilabeteak turismoa, Sustapen Ekonomikoa eta Obra eta Zerbitzuen Arloetako hainbat ordezkarirekin. Lantaldearen emaitza da, esaterako, Alde Zaharra edertzeko egindako plana.

Bideetan hobekuntzak

Egindako diagnostikoak oinezkoen irisgarritasuna jomugan jartzen du hainbat gunetan. Horien artean dago Trasantiago eta Gasteiz kaleak batzen dituen igarobidea, osasun zentrokoa, hain zuzen ere. Bestalde, Mikel Deunako plazan ere hainbat zeregin planteatu dituzte. Alabaina, erantzukizuna publikoa eta pribatua dela nabarmendu dute. Trasantiagoko zelaian, aldiz, harresia garbituko dute, argiztapena berritzearekin batera. Haratego kalean ere aldaketak egingo dira. Era berean, tren geltokiaren inguruan moldaketak egingo dituzte.

Komertzioei dagokienean, seinalizazioak Alde Zaharra edertzeko planarekin bat ez datozela adierazi dute. Haatik, udaletik, hainbat diru-laguntza luzatuko dituztela jakinarazi dute. Ildo beretik, herritarrei, inplikazioa eskatu diete, ingurumena "edertzeko" ezinbestekoak direlakoan. Horretarako, fatxaden lehiaketa egingo dutela adierazi dute. Iaz izan zen txapelketaren lehen edizioa, eta aurten, Alde Zaharraz gain gainontzeko auzoetara zabalduko dute ekimena. Aipatutako jarduera guztiak legealdi honetan egingo direla adierazi dute.

Plastikoa eta organikoa birziklatzeko zaborrontzi txikiak jarri dituzte

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako kaleetan zaborra sailkatuta biltzeko ontziak jarri ditu udalak. Helburua birziklapena sustatzea da. Zaborrontzi bereziak hiru leku ezberdinetan jarri dituzte momentuz.

Lehendabizikoa Foru plazan dago, bestea Gernika plazan eta azkenekoa Herri Ikastetxeko jolastokian. Alde batetik, plastikoa sailkatzeko aukera ematen du ontziak, eta bestetik organikoa.

Udalak aditzera eman duenez, era honetan etxeetako zaborra sailkatzeko ohitura gune publikoetara zabaldu nahi dute.

Artziniega

Dozenaka ekintza egongo dira Gabonetako Egitarauan, asteburu honetatik aurrera

ERREDAKZIOA I Unai Gotxi Kastrexana

Urtero bezala, hainbat ekintza antolatu dira Gabonei begira Artziniegan. Horren adibide dira gabon gaueko duatloia, Olentzeroren harrera, mendi irteerak, Bizi Festa, haurrentzako jolas parkeak, hitzaldiak, ikuskizunak eta liburutegiak antolatutako tailerrak.

Aurreko astean Mari Jose Torrecilla arkeologoak Museoan eskainitako hitzaldiak egitarauari hasiera eman zion eta datorren asteburua ekintzaz betea egongo da. Ostiralean, abenduak 18, Hiriska elkarteak antolatzen duen XVII. Postre Lehiaketa egingo da. Sariak 19:00ean banatuko dira Udaletxe Zaharrean eta aurkeztutako postreak dastatzeko aukera egongo da gero.

Larunbaterako, Urizahar elkarteak jostailu bilketa solidarioa antolatu du 11:00etatik aurrera Kultura Etxeko lehen solairuan. Eguerdian elizako jaiotza muntatuko da. Arratsaldean, berriz, Artziniega Museoan, Jose Angel Totorika margolariaren "Artziniega" erakusketa inauguratuko da 18:30etan. Ondoren, komentuan "Filipinetako kaleetako umeentzako" kontzertu solidarioa eskainiko dute mojek, Itzalde abesbatzarekin batera. Igandean 10:30etan eguneko zentroko ateak zabalduko dituzte. Arratsaldean ikazkinak Artziniega Museoan egongo dira 18:30etatik aurrera umeek Olentzerori idatzitako gutunak jasotzeko. Aurten aurretik Museora deituaz izena ematea gomendatzen da, txandak antolatu direlako.

_Herriko plaza

_agurrak

Mikel

Zorionak potxolo, faltan botatzen zaitut eta egun zoriontsua izatea espero dut. Ondo pasa!

Swati lehengusina

Arene

Zorionak txikitxu! Asko pozten gaitu zurekin egun berezi hau igarotzeak. Ondo pasa! Maite zaitugu!

Ama eta Laida

Endika/Arkaitz

Zorionak biki zoragarriak 7 urte betetzeagatik! Oso ondo pasa urtarrilaren 5ean!

Familia

Joneak

Zorionak Jone eta Jone! 23 urte jada! Oso ondo pasa Gabonetako oporretan!

Lagunak

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera urtarrilaren 8a baino lehen.

_denborapasak

Agindu		Zut		Pipatzeko landare				
❖ IZENA		Euskal atzizkia		Igelaren antzeko				
					Musika nota		Joan aditzaren oina	
					Koipe		Abesti	
Fruitu egosien nahasturak								Potasioaren ikurra
Ez eme								Kontsonantea
		Arraun euskarriak						
		Pinu mota						Modua
Hitz, solas, berba				Gipuzkoako hiria				Bokala
Sarrera edo irteera				Dauka				Einstenioa
			Ozta			Gironako ibaia		
			Kontsonantea			Boroaren ikurra		
Solido bat isurkari bihurtu				Gerrarako makina mota				

Noka, dizut / Pl., lore mota — Kordea galdu / ❖ DEITURA — Zimino mota / Lepoa, iduna — Errege-erreginen ikurrak

Jomuga / Bahreingo hiriburuko

❖ Gimnastikalari amurrioarra.

OSO ERRAZA

	5	9	6	7	2		3	8
8			9	4	5			
			8			7		
3	6						4	
				5	9			2
2		4	3	6				5
			5	8	6			4
	2	7					8	6
				2	4			

ERRAZA

		4	8		6		2	
			9	4		7		
6	5					3	4	8
			3			8		5
		3		7	8			
	8	7	2		4			3
			6					4
		6	4					
	7	8		5	2			

ZAILA

	4					5		
			3				8	9
8				2				7
2						8		
	8	4						3
	3	5	8		6		9	4
			7	9		4		6
	1	2				9	7	
				6			2	8

OSO ZAILA

		1		8	3	9		
	2			6			5	
		6		9		3		2
		9	6		2		4	
				5				
5			3					4
	7	4						
1			7		8	6		

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Etxera bueltatzeko momentua heldu da! Gabon gaua heltzear dagoela eta, maite dituzunekin ospatzeko aukera izango duzu egun batzuk barru. Zoriontsu egiten zaitu bueltatzeak, baina are gehiago etxekoak, zure zain baitaude etxean!

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Ez izan beldurrik urte bukaerari. Urtea bukatzen denez ezarritako helburuak bete ez dituzunaren sentsazioa daukazu, baina orain emandako pausoek datorren urtean egongo diren aldaketetan eragina izango dute agian, ez larritu!

HERENSUGE
03.21-04.20

Ikatza jaso dezakezulako azkenaldi honetan formal-formal zabiltza. Opariak jasotzeko ordua heltzen denean bakarrik kezkatzen zaitu zure jarrerak izan dezakeen eraginak. Jarrera berekoia zurea, zein da urte berrirako zure helburua?

LAMIA
04.21 - 05.20

Ez ito seme-alaben desio eta ametsak. Umeei errealitatea erakusteak inozentziarekin amaitzea dakar batzuetan, eta zoriontasuna eta alaitasuna suntsitzen ditu horrek. Ametsak izateak helburu asko lortzen lagunduko dio.

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Maitasun kontuetan ez zabiltza fin azkenaldian. Buruari bueltak ematen badizkiozu ere ez zara zure senak esaten dizuna jarraitzera ausartzen. Urte bukaera heltzear dagoela zergatik ez ausarta izan eta urte berria aldaketekin hasi?

BASANDERE
06.21 - 07.20

Ez egin beti ideia guztien kontra. Ideiaren bat ona iruditzen ez bazaizu, baina besterik ez badaukazu, ez ezazu besteen lana deusezta-tu. Ideia asko pilatuaz proiektu sendo eta posible bat eraiki daiteke askotan, betiere guztien proposamenak biltzen baditugu.

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Azkenaldi honetan lanpetuta zabiltza eta ez duzu zure buruan pentsatzeko astirik. Asteburu honetan lagunekin egotea terapiarik onena izan da zuretzat, horrelako momentu gehiago bilatu beharko dituzu egunerokotasunak ito ez zaitzan.

JENTILAK
08.22 - 09.22

Lagunek gairen baten inguruan eztabaidatzen dutenean ez duzu parte hartzen, isiltasuna erabiltzen duzu ziurtasun faltagatik, baina okertuta zaude. Gehiago ikasten da hausnarketa baten ostean eztabaidatzen besteek esaten dutena aintzat hartzen baino.

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Gabonek xarma berezia daukate, ez opariengatik, maitasun seinale izateagatik baizik. Momentu oro sentitzen dena erakutsi behar bada ere, ez dugu egiten. Data hauek egokiak dira maite ditugunei sentiarazten digutena esateko.

MARI
10.23 - 11.22

Opariekin bueltaka zabiltzala ez dakizu lagun ezkutuan tokatu zaizunari zer oparitu. Oparirik preziatuenak liburuak izan ohi dira. Kirola gorputzarentzako dena da irakurmena buruarentzako. Irakasteaz eta entretenitzeaz gain, egunerokotasunerako entrenatzen gaitu.

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Zure urtebetetzea ospatzeko aukera izan al duzu? Ingurukoak lanpetuta ibili dira azken aste hauetan eta zurekin ospatzeko aukera ez dute izan. Aukera hori bilatzen saiatu beharko zarete.

SUGAAR
12.20 - 01.19

Ez zara lagun horri jakin behar duena esatera ausartu. Pertsona baten zoriontasuna arazo batek aldatu dezakeenean egia da pertsona hori babestuko duen gauza bakarra.

_irakurlearen txokoa

_agenda

12.17 OSTEGUNA

10:00 LAUDIO
BISITA
Olentzero eta Maridomingiren eskutik
Ikastetxeak

12:00 LAUDIO
MOBILIZAZIOA
Erretiratuen elkarretaratzea
Herriko plaza

17:30 AMURRIO
IPUIN KONTALARIA
Olentzeroren ipuina
Liburutegia

18:30 LAUDIO
JARDUNALDIAK
Ermu Andra Mariri buruzko hitzaldia, EHUko irakasleen eskutik
Kultur Etxea

19:00 LUIAONDO
HITZALDIA
Lesioak nola ekidin kirolean
Gizarte-Etxea

12.18 OSTIRALA

09:00 AMURRIO
GABONETAKO AZOKA
Tokiko ekoizleak
Juan Urrutia Plaza

17:00 URDUÑA
MAGIA
Sun Magoa
Alondegia

17:00 URDUÑA
TAILERRA
Gabonetako apaingarriak
Gaztegunea

18:00 LAUDIO
OLENTZERO ETA MARIDOMINGI
Ikazkinen bisita eta txokolatea
Ugarte Plaza

18:00 ARTZINIEGA
LEHIAKETA
Gabonetako gozogintza
Udaletxe zaharra

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

12.18 OSTIRALA
Bañueta Kiroldegia
18:00 Amalur ikuskizuna aurkeztuko dute

18:00 OKONDO
IPUIN KONTALARIA
Liburutegia

18:00 ARTZINIEGA
OMENALDIA
Ana Lopez Rodriguez omenduko dute 100 urte beteko baititu
Udalbatza aretoa

19:00 OROZKO
KONTZERTUA
Trikiti eta pandero Gabonetako kontzertua, Iñaki Plazaren ikasleak
Donibane Aretoa

19:30 ARESPALDITZA
KONTZERTU DIDAKTIKOA
Bizarbeltz pirata, Molto Vivace taldearen eskutik
Udaletxea

23:30 AMURRIO
BAKARRIZKETA
Ignatius Farray
Alanbike Taberna

12.19 LARUNBATA

11:00 LANTENO
MARRAZKI LEHIAKETA
Arte Eskola

11:00 ARTZINIEGA
ELKARTASUNA
Jostailu bilketa
Udaletxe zaharra

12:00 ZUHATZA
KONTZERTUA
Itzalde eta Mendiola abesbatzen emanaldia
Eliza

16:00 LUIAONDO
ESKUTITZAK JASOTZEA
Olentzero eta Maridomingirentzat
Santo Domingo zelaia

16:30 TERTANGA
AUZOLANA
Euskararen jolas txokoa egiteko
Eskola zaharra

17:00 ARETA
HAUR IKUSKIZUNA
Euskal Mitologia
Kultur Etxea

PUNTAZO EGUNA

12.19 LARUNBATA
11:00 Tailerrak ume eta nagusientzat
13:00 Txupinazoa eta triki-poteoa
15:00 Herri bazkaria
16:30 Puntazo Gynkana
18:30 Happy Hour
19:00 Batukada
21:00 Zurrakapotea
22:30 Kontzertua: Ingo Al Deu, Altxatu, DJ Ruba

19:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Santa Luzia Abesbatza eta Arte On Eskolania
San Pedro Eliza

19:30 ARTZINIEGA
KONTZERTUA
Itzalde Abesbatza
Agustindarren komentua

20:00 AMURRIO
GOSPEL KONTZERTUA
Soulshine Voices
Amurrio Antzokia (10€)

20:00 AMURRIO
TXOKOGORRI LIBRE
Peru Selektah eta Airaldeko Sound
Txokogorri

20:30 URDUÑA
KONTZERTUA
Andra Mari Eliza

22:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Atxurre eta Akerbeltz
Kultur Etxea

12.20 IGANDEA

09:30 LAUDIO
LASTERKETA
Laudio Ibar Krosa
Ellakuri

10:00 LAUDIO
GABONETAKO AZOKA
Aldai Plaza

10:30 URDUÑA
TXANGOA
Maridomingiren etxera
Suhiltzaileak

17:30 URDUÑA
PHOTOCALL TAILERRA
Gaztegunea

18:00 LAUDIO
EUSKAL DANTZAK
Itxarkundiaren eskutik
Kiroldegia

18:30 ARTZINIEGA
GABONAK
Ikazkina
Etnografia Museoa

12.22 ASTEARTEA

10:30 ARTZINIEGA
OLENTZERO JAIA
Ikastatxea

12.23 ASTEAZKENA

09:30 ARESPALDITZA
OLENTZERO ETA MARIDOMINGI JAIA
Herrigunea

12:30 AMURRIO
GABON KANTAK
Aresketa Ikastola
Juan Urrutia Plaza

18:00 LAUDIO
GABON KANTAK
Ikasleen eskutik

ZINEMA

12.19 LARUNBATA

"MARTE" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA IKASTETXEA 17:30ean eta 20:00etan (3€)

12.20 IGANDEA

"YOKO ETA BERE LAGUNAK" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean (3 €)

"MARTE" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA IKASTETXEA 17:30ean eta 20:00etan (3€)

"EL PUENTE DE LOS ESPIAS" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00ean (3 €)

"SICARIO" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

12.21 ASTELEHENA

"THE WHALE RIDER" AIARAKO UDALETXEA 09:30ean

"SICARIO" AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

12.26 LARUNBATA

"OCHO APELLIDOS CATALANES" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA UDAL IKASTETXEA 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

12.27 IGANDEA

"EL VIAJE DE ARLO" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,60 €)

"LOS JUEGOS DEL HAMBRE: SINSAJO II" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

Jimmy jazz gasteiz

ABE 19 // La M.O.D.A.
+ Moonshine Wagon
21:00 (10 € + gastuak / 12 €)

ABE 26 // SEGISMUNDO TOXICÓMANO
+ Los Tronchos
20:30 (12 € + gastuak / 15 €)

ABE 28 // GREEN VALLEY
+ Leo (El Charrúa)
20:00 (10 € + gastuak / 13 €)

ABE 29 // BAND JOVI
20:30 (10 € + gastuak / 15 €)

ABE 31 // URTEA HOSTIAKA HASIKO DUGU
Gabonzahar afaria + Kontzertua + Jaia = 30€

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 157.900 €
95 m², 3 gela, 2 bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela jantokiarekin, trastelekua, garajea, igogailua, guztiz hornituta.
Erref.: 167.667

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 135.000 €
74 m², 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela, despentsa, balkoia kanpoaldera, altzairuz hornituta, zentrutik 5 minutura.
Erref.: 167. 685

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
77 m², 3 gela, sukaldea eraberritua balkoiarekin, egongela jantokiarekin, bainugela, txukundegia, igogailua.
Erref.: 167.683

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 69.000 €
90 m², 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela, jakitokia, terraza, eraberritzeko.
Erref.: 167.565

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 127.000 €
(10.000 € BEHERATUTA!!!)
78 m², 3 gela, bainugela eraberrituta, sukaldea, egongela balkoiarekin, despentsa, kanpoaldera, egoera bikaina.
Erref.: 167.643

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: kontsultatzeke
86 m², 2 gela, 2 bainugela, sukaldea esekitokiarekin, 32 m²-ko egongela, terraza, trastelekua, garajea, igogailua, egoera bikaina.
Erref.: 167.622

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: kontsultatzeke
90 m², 3 gela, 2 bainugela, komuna, sukaldea, egongela, terraza lorategiarekin, trastelekua, garajea, igogailua, kanpoaldera.
Erref.: 167.478

www.etxaurre.com
946 72 85 50
Zumalakarregi, 38 Laudio

_ezin galdu

OLENTZERO ETA MARIDOMINGI: Hurrengo egunetan Olentzero eta Maridomingi eskualdeko herri guztietan egongo dira. Hamaika hitzordu antolatu dituzte umeekin egoteko eta www.aiaraldea.eus web-atarian topatuko dituzue..

URDUÑAKO GAZTETXEKO IV. BERTSO SAIOA: Abenduaren 25ean puntako bertsolariak arituko dira: Miren Amuriza, Aitor Sarriegi, Fredi Paia, Eneritz Artetxe, Arkaitz Estiballes eta Asier rubio, hain zuzen. Urduñako Gaztetxean izango da emanaldia 20:30ean.

_kontra

Aimar Gutierrez

Adela Pecino Zarzuela

"Jendeak ez du gaztainak saltzearen atzean dagoen lana ikusten"

ADELA PECINO ZARZUELAk (Cadiz, 1959) ia 10 urte daramatza gaztaina saltzaile moduan. Familiatik datorkion ofizioa da, bere aitak duela 40 urte ekin baitzion tren itxurako gurpildun labearekin gaztainak kalean erretzeari.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Aitarengandik datorkizu gaztaina saltzaile ofizioa.

Nire aita 1962. urtean hasi zen gaztaina saltzaile gisa, Laudiora bizitzera etorri ginenean. Elikagai denda bat ireki zuen lehenbizi, eta gozoki kiosko bat jarri zuen gero, zeinetan gaztainak ere prestatzen zituen. Txurro denda bat jarri zuen ondoren, herrian zegoen bakarra. Horrela aritu izan zen uholdeak gertatu ziren arte. Uholdeen ostean denda itxi zuen eta gaztaina saltzaile soil izatera pasa zen. Lan horretan aritu izan da 1972tik orain dela bederatzi urtera arte. Apur bat gaixorik jarri zen eta postua jartzeko baimena jada tramitatua zuenez nik ordezkatu nuen. Orduz geroztik ni ibili izan naiz, nahiz eta aurrez ere berarekin aritu gaztainak lortzen. Ofizioa, beraz, ez zen berria niretzat.

Nongoak dira saltzen dituzun gaztainak?

Galiziarrak saltzen ditugu gehienetan. Baina apur bat beranduago erortzen direnez beste ekoizle batzuengana jo behar izaten dugu gaztaina denboraldiaren hasieran. Horregatik, lehen astean Avila edo Andaluziako gaztainak izaten ditugu, nahiz eta ez ditudan galiziarrak bezainbeste gogoko.

Aiaraldean ez dago ekoizlerik ala?

Hemen ez. MercaBilbao da Gaztainak erosteko dagoen lekurik gertuena. Nik urrunagotik ekartzen ditut, nire aitak zituen harremanak baliatuta.

Zein da gaztaina eroslearen perfila?

Denetarik dago. Umeak zirenean nire aitari gaztainak erosten zizkioten batzuk nire bezeroak dira orain. Adin eta jatorri guztietako bezeroak ditut, emakume saharar batzuk tartean. Ez dut perfil zehatzik, oso zabala da.

Lan erraza da al da zurea?

Gogorra da gaztaina saltzaileen lana. Denboraldia oso motza da eta ondo landu nahi baduzu egunero egon behar zara hemen. Jendeak soilik ikusten du postuan gaztainak saltzen zaudela, baina ez du atzean dagoen lana ikusten. Aurretik gaztainak banan-banan aztertu behar dituzu, ondo dauden ikusteko.

Jakia kontsumitzeko modua aldatu al da?

Kontsumitzeko modua berdina izan da azken 40 urteetan: dozena edo dozena erdi gaztaina egunkari papereko kukurutxo batean sartuta, errea. Jendeak orokorrean ez du gaztaina kuzinatzeko ohiturarik. Nik urte osoan egiten ditut etxean errezetak gaztainarekin, urte osoan. Txerria gaztaina saltsarekin, adibidez, oso goxo dago.

Eta kontsumoa mantendu egin al da?

Nire aita gaztainak saltzen zebilen garaian 20 pertsonako ilarak sor zitezkeen. Orain ez da halakorik ikusten. Jaitsi egin da kontsumoa, eta krisiarekin are gehiago.

Irati
Marañon
ITZULTZAILEA

_Leihotik

Espresa

Urtebete daramagu elkarrekin bizitzen. Hasiera zaila izan zen, gatazkatsua. Beldurra ematen zenidan; zuri buruzko zenbait kontu ilun entzunak nituen-eta. Gurasoak ere gure harremanaren kontra zeuden; ez dituzte sekula gustuko izan zure kastakoak. Tradizionalagoak dira, antza. Baina, pixkanaka-pixkanaka, zuregana hurbiltzen hasi nintzen, limurtzen, ukitzen, laztantzen... eta, azkenean, ezinbesteko bilakatu zara etxean. Gure amonak zioen etxeko tresnarik onena, zalantzarik gabe, garbigailua dela, eta zentrifugazioa dela sekula egin den aurkikuntzarik handiena. Nire kuttunena, ordea, zu zara: presio-eltzea. Apur bat kostatu zitzaidan zuri neurria hartzea; beno, zuri baino, behar duzun ur-kopuruari, baina behin martxa hartuta... Bikain konpontzen gara. Denbora eta gasa aurrezten laguntzen didazu, eta, gainera, primeran prestatzen dituzu gehien gustatzen zaizkidan jakietako batzuk: garbantzuak, brokolia, sagar-konpota... Ez dago zu bezalakorik! Egunen batean, bizitzan zehar egin ditudan inbertsiorik onenak zein diren galdetzen badidate, zu zerrenda horretan egongo zara, bai horixe.

Konpromisoa
gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin

JEZ
euskararekin

JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar z/g · 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es